

2024KO URTARRILAK 21-27

KOLONBIA 2024

JARRAIPEN-MISIOA

«HERRIALDE HAU OSOTASUNEAN GOZATZEAREKIN AMESTEN
JARRAITZEN DUGU»

AFRIKAR JATORRIKO LIDERRA. ACONC. SANTANDER DE QUILICHAO

«GUREKIN, BETI BAKERAKO, BAINA SEKULA EZ GERRARAKO»


LIDER INDIGENA. OIA. MEDELLIN

Txostenaren egilea:

(zehar)
errefuxiatuekin



Laguntzaileak:



**BILBO
2024**

EDUKIEN AURKIBIDEA

EAEKO ORDEZKARIEN TALDEA.....	03
AGENDA.....	04
ESKERTZAK.....	05
TESTUINGURU OROKORRA.....	06
LURRALDEKO- TESTUINGURUA.....	09
• Santander de Quilichao (Cauca).....	09
• Eskaerak.....	10
• Medellín (Antioquia).....	12
• Eskaerak.....	14
ERAKUNDEEI HELARAZITAKO KEZKA NAGUSIAK.....	15
ERAKUNDE-BILERAK ETA HARTUTAKO KONPROMISOAK.....	16
• Unidad Nacional de Protección (UNP).....	18
• Ministerio de Interior – Dirección de Derechos Humanos.....	19
• Unidad para las Víctimas	20
• Agencia Nacional de Tierras (ANT)	22
• Ministerio de Igualdad y Equidad	23
• Consejería Presidencial de DD.HH. y Derecho Internacional Humanitario.....	24
• Alto Comisionado para la Paz.....	25
• Oficina del Alto Comisionado de Naciones Unidas para los Derechos Humanos (OACNUDH – Colombia).....	26
GOMENDIOAK.....	27
BIBLIOGRAFIA.....	29

EAE-KO ORDEZKARIEN TALDEA

EUSKO JAURLARITZA

Noemí Ostolaza Arkauz, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasuneko zuzendaria.

Paul Ortega Etcheverry, eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendaria.

Maite Garmendia Eguinoa, eLankidetzeta- Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.

EUSKO LEGEBILTZARRA (GIZA ESKUBIDE, BERDINTASUN ETA JUSTIZIA BATZORDEA)

Maitane Ipiñazar Miranda, batzordeburua, Euzko Abertzaleak – Nacionalistas Vascos.

Iñigo Iturrate Ibarra, Euzko Abertzaleak - Nacionalistas Vascos.

Diana Urrea Herrera, EH Bildu.

Miren Gallastegui Oyarzábal, Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak.

Isabel González Rodríguez, Elkarrekin Podemos - IU.

Carmelo Barrio Baroja, Grupo Vasco Popular - Ciudadanos.

Juan Carlos Areizaga Hernández, letradua.

GIZA ESKUBIDEEN, LANKIDETZAREN ETA ELKARTASUNAREN ARLOETAKO ERAKUNDEAK

Cristina Maoño Portilla, Alboan Fundazioa.

Estibaliz Gómez de Segura Olalde, Mugarik Gabe.

Mercedes de Madrazo Abad, Mugarik Gabe.

Irene Molero, EAEko GGKEen koordinatzailea.

Arantza Chacón Ormazabal, Zehar-Errefuxiatuekin Elkartea.

Leire Lasa Fernández, Zehar-Errefuxiatuekin Elkartea.

AGENDA

Santander de Quilichao (Cauca) - 2024 urtarrilak 21

Giza eskubideen aldeko erakundeak, mugimendu sozialak eta herritarren mugimenduak:

- Ipar Cauca Kontseilu Komunitarioen Elkarte (ACONC)
- Cauca Bizitzaren eta Giza Eskubideen Aldeko Sarea
- Cauca Ura, Bizitza eta Lurraldea Defendatzeko Batzordea
- Landa Garapenerako Nekazarien Elkarte (ACADER)
- Ipar Cauca Etnia eta Kultura Arteko Lurralde Kontseilua
- Ipar Cauca Kabildo Indigenen Elkarte (ACIN)

Medellín (Antiokia) - 2024ko urtarrilak 22 eta 23

Giza eskubideen aldeko erakundeak, mugimendu sozialak eta herritarren mugimenduak:

- Antiokiako Elkarte Indigena (OIA)
- Trebakuntzarako Herri Institutua (IPC)
- Geneva Call

Erakunde publikoak:

- Antiokiako Gobernazioko Giza Eskubideen Zuzendaritza
- Lurren Agentzia Nazionala (ANT)
- Herriaren Defendatzailea

Nazioarteko erakundeak:

- NBEren Egiaztatze Misioa
- Iheslarientzako Nazio Batuen goi-komisarioa (UNHCR)

Bogota, 2024 urtarrilak 24-27

Giza eskubideen aldeko erakundeak, mugimendu sozialak eta herritarren mugimenduak:

- Ikerkuntza eta Hezkuntzarako Herri Zentroa (CINEP/PPP)
- Sisma Mujer
- En Movimiento
- Vivamos Humanos Korporazioa

Erakunde publikoak:

- Lurren Agentzia Nazionala (ANT)
- Bakerako goi-komisarioa
- Errepublikako Ordezkarien Ganberako Giza Eskubideen eta Audientzien Batzordea
- Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren kontseilari presidentziala
- Gobernu Indigena (Kolonbiako Erakunde Nazional Indigena, ONIC)
- Biktimentzako Unitatea
- Babeserako Unitate Nazionala (UNP)
- Berdintasun eta Ekitate Ministerioa
- Barne Arazoetako Ministerioa (Giza Eskubideen Zuzendaritza)

Nazioarteko erakundeak:

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa (OACNUDH)

Kidego diplomatikoa:

- Espainiaren Kolonbiako enbaxada
- Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID)

ESKERTZAK

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa elkartasun politikoa adierazteko tresna da, eta mehatxuen eta jazarpenaren mendeko egoeretan jarduten duten giza eskubideen defendatzaileak babesten laguntzea du helburu. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan hartzen ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatu dugu EAEko ordezkariak lekuan bertan bisita egitea.

Era berean, modu bat da EAEko gizarteari erakusteko giza eskubideen aldeko taldeek, antolakundeek eta komunitateek etsaitasuneko egoeretan dihardutela. Esperientzia eta ezagutza horiek ekarpen oso garrantzitsua dira gizarteraldaketarako gure prozesuetan.

EAEko ordezkariak, beste behin ere, geure BABESA ETA ELKARTASUNA adierazi nahi dizkiegu giza eskubideen aldeko erakundeei, emakume elkarteei eta erakunde feministei, herri indigenei, herri beltzari, nekazarien komunitatei eta hiri-sektoreei, eta eskerrak eman dizkiegu eman diguten harrerarengatik eta bizitza duina eta lurraldea babesteko eta gizarte-justizian oinarritutako bakea eraikitzeke egiten duten lan nekaezinarengatik. Eskerrik asko guztiei, proposamenak, salaketak, minak eta esperantzak eskuzabaltasunez azaltzeagatik.

Eskertza berezia eman nahi diegu Ipar Caucako Kontseilu Komunitarioen Elkarteari (ACONC) eta Antiokiako Elkarte Indigenari (OIA); bisita hau egitearen arrazoia elkarte horien jarraipena egitea izan da. Aurrerantzean, arreta berezia jarriko diegu beren segurtasun- eta babes-egoerei, helarazitako eskariak betetzeari eta herrialdeko erakundeek hartu dituzten konpromisoari.

Batzar eta bileretan egiaztatu dugunaren arabera, gaur egun herrialdeko bizitzan oraindik ere mina, sufrimendua eta indarkeria etengabeak dira.

Eskerrik asko baita ere Kolonbiako erakunde publikoei, kidego diplomatikoari eta herrialdeko nazioarteko erakundeei, eskainitako denboragatik eta lankidetzagatik.

TESTUINGURU OROKORRA

Front Line Defenders elkartearen arabera, 2022an giza eskubideen 401 defendatzaile hil zituzten gutxienez, 26 herrialdetan. Kolonbian bakarrik, 186 hildako erregistratu ziren; hau da, kopuru osoaren %46a.

2023ko urtarriletik ekainera Somos Defensores elkarteak 466 eraso (109 emakume 329 gizon) erregistratu zituen, 2022ko aldi berean baino %6 gehiago. Horietatik 85 hilketak izan ziren. Gainera, mehatxuak, atentatuak, atxiloketa arbitrarioak, judizializazioak, desagertze behartuak, bahiketak, informazio-lapurretak eta desplazamendu behartuak ere erregistratu ziren.

Indarkeria-kasuak gehienbat hiru departamendutan gertatu ziren, eta EAEko ordezkariak horietako bi bisitatu zituzten: Cauca, Santander eta Antiokia.

Erasoen ustezko erantzuleei dagokienez, %41 ezezagunei egozten zaizkie, %24 paramilitarrei, %16 Bakearen aldeko Akordioaren ondorengo taldeei, %8 Askapen Nazionalerako Armadari (ELN), %4 norbanakoei, %4 Indar Publikoari, %2 talde kriminalei, %0,6 estatuko erakundeei eta %0,4 aliantza kriminalei.

Egoera horretan, Kolonbiako Konstituzio Gorteak, SU-546/23 Epaian, Konstituzio-kontrako Gauzen Egoera (ECI) [1] deklaratu zuen eta honakoak aitortu zituen: liderren eta giza eskubideen defendatzaileen eskubideen urraketa sistematikoak, masiboak eta orokortuak, erakundeek eraginkortasunez erantzuteko duten ezgaitasuna eta arazoari sistematikoki aurre egiteko egiturazko erabakien beharra.

Hortaz, Kolonbiako Konstituzio Gorteak aitortu du herrialdean giza eskubideak defendatzen dituztenek ezinbesteko eginkizuna dutela, eta baieztatu du estatuaren betebeharrak saihetsezina dela eskubideak defendatzen direla bermatzea.

Kolonbiako gobernuak Erabateko Bakearen politika publikoaren[2] alde egindako apustuak itxaropen handiak sortu zituen, aukerak sortu baitziren zenbait talderekin hurbilketa-saiakerak egiteko, besteak beste, ELN, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileen (FARC) Estatu Nagusi Zentrala (EMC), Medellingo talde kriminalak, Los Shottas eta Los Espartanos (Buenaventura hirian), Segunda Marquetalia, Kolonbiako Autodefensas Gaitanistas (AGC) eta Los Pachenca.

Somos Defensores elkarteak idatzitako «La Espera» [3] txostenak dioen bezala, bakerako aukera hori aprobetxatzeko, azken urteetan nabarmenki indartu diren eta gaur egun landa- eta hiri-eremuetan indarkeriak sortzen dituzten taldeekin negoziatu beharra zegoen. Horrenbestez, zalantza ugari sortu ziren gobernuak gaitasun militar handia, kasu batzuetan lurralde-kontrol irmoa, gizarte-eragina eta baliabide asko dituzten egitura horiekin aldibereko prozesuak gauzatzeko duen gaitasunaren inguruan.

[1] Konstituzio-kontrako Gauzen Egoera erabaki judizial bat da, eta, horren bitartez, Kolonbiako Konstituzio Gorteak aitortu zuen herrialdean oinarritzko eskubideen urraketa masiboa, orokorra eta egiturazkoa eratu dela.

[2] Erabateko Bakearen 2272 Legea, 2022ko azarokoa.

[3] «La espera». Sei hileko txostena, 2023ko urtarrila-ekaina. Somos Defensores programa: <https://somosdefensores.org/informe-semestral-la-espera/>



EAEko ordezkariak eta giza eskubideen aldeko erakundeetako ordezkariak (Bogota)

Txosten horrek adierazten dituen dinamiketako batzuk egiaztatu ahal izan zituzten EAEko ordezkariak Kolonbiako lurraldeetara egindako bisitetan, topaketak eta elkarrizketak egin diren erakundeek jakinarazita:

- Egitura kriminalen arteko liskarrek, nagusitasunak eta akordioek lurralde-dinamikak markatzen jarraitzen dute hein handi batean.
- Egitura armatuak su-etenaz baliatu dira beren presentzia eta lurralde-kontrola indartu eta hedatzeko (bereziki AGCren eta EMCren kasuetan).
- Istilu armatu bortitzak legez kanpoko taldeen artean gertatzen dira, eta ez talde horien eta Indar Publikoaren artean. Indepazen arabera, Cauca da istilu gehien gertatzen diren departamendua.
- Taldeekin jokatzeko protokoloak, beren monitorizazio- eta egiaztapen-mekanismoak eta taldeen inguruko txostenak ez ezagutzeak prozesuaren gaineko sinesgarritasuna eta konfiantza kaltetzen ditu.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EAE-KO PROGRAMA



EAEko ordezkariak eta ONICEko ordezkariak (Bogota)



EAEko ordezkariak eta Errepublikako Ordezkarien Ganberako Giza Eskubideen eta Entzutegien Batzordea



EAEko ordezkariak Espainiaren Enbaxadarekin eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziarekin (AECID)

LURRALDE-TESTUINGURUA

Santander de Quilichao (Cauca)

EAEko ordezkariekin bildu ziren nekazarien komunitateek, herri beltzak eta herri indigenek departamenduan pairatzen duten KRISI HUMANITARIOA salatu zuten.

Ipar Caucako Kontseilu Komunitarioen Elkarteko (ACONC) ordezkariak aipatu zuten gaur egun indarkerien jomuga nagusia lidergo sozialak direla, herri beltzaren aurkako hilakintza-plan bati jarraikiz. Horren aurka egiteko, bakearen aldeko apustuari eusten diote, erresistentzia-estrategiak indartuz eta lurraldean bertan geratuz:

2015–2035 urteetarako Bizi Onaren Plana, Antzinako Etika eta Justizia Auzitegiak eraginkor egiten duen Ipar Caucako herri beltzaren antzinako justizia-sistema eta Guardia Cimarrona ezartzea, eta beste herrialdeetako erakunde eta antolakundeekin elkartasun-sareak sortzea, hala nola EAEko Babes Programa.



EAEko ordezkariak ACONCko ordezkariekin (Santander de Quilichao, Cauca)

Azaldu zuten FARC-EPren (Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak – Herriaren Armada) eta Kolonbiako gobernuaren arteko negoziazio-prozesuan herri beltza gatazka politiko, sozial eta armatuaren biktima ikusezin bihurtu zela, eta^[4] etniei buruzko kapituluak egoera horri erantzun nahi ziola.

Esan ziguten «gatazka ondorengo aroan» segurtasun-gabezia handitu dela. Legez kanpoko talde armatuak dibertsifikatu egin dira eta lurralde-kontrol indartsua sortu dute edo kontrol hori eskuratzeko liskarrak piztu dituzte.

4. Bakearen aldeko Azken Akordioaren etniei buruzko kapituluaren akordioaren puntuetako bakoitzaren ondorio etnikoak aipatzen dira, Kolonbian eta nazioartean aitortutako etnien eskubideak zaindu behar direla ezartzen da eta puntu bakoitzerako ekintza bereziak kontuan hartzen dira, herri horiek gatazka armatuan pairatutako ondorio neurrigabeak aitortuz.

Jokaera- eta jantzi-arauak, etxeratze-aginduak, leku batetik bestera joateko baimen-eskaerak, telefono eta ordenagailu mugikorren eta zorroen kontrolak eta bestelako indarkeriak inposatzen ari dira. Talde horien ekintzak narkotrafikoari eta debekatutako ekonomiei (erabilera debekatuko laboreak, legez kontrako meatzaritza, etab.) oso lotuta daude, eta iraganeko garaietako postulatu ideologikoetatik oso urrun. Gazteak, mutikoak eta neskatoak behartuta edo borondatez errekrutatzeak eta antolamendu-prozesuen kooptazioak eragin berezia dute komunitateetan, eta horrek zaildu egiten du autobabeserako mekanismoak ezartzea. Testuinguru horretan, indarkerien egiletzak lausoagoak diren arren, oraindik ere emakumeak dira indarkeria gehien pairatzen dutenak. Horrek guztiak birbiktimizazio-prozesu larria dakar.

Gatazka armatuaren ondoriozko arriskuez eta lurraldean presentzia duten askotariko taldeen ekintzez gain, hauek aipatu behar dira: kanaberaren monolaboreen lursail handiak, lurra eskuratzeko gatazkak, gizarte-mugimendua eta departamenduko etnia-komunitateak gerrillari gisa estigmatizatzea, komunitateetan eta familietan indarkeria matxistek jarraitzea eta ohiko delinkuentzia. Aurreko guztiaren ondorioz, gizon eta emakume liderrak mehatxatzen eta erailtzen dituzte, behartutako desplazamenduak egiten dira, bertako ohiturak eta erabilerak galtzen dira, ingurumena narriatzen da, herritarren osasunean ondorio kaltegarri larriak sortzen dira eta muturreko pobrezia dago.

Erakundeekiko konfiantzarik ez dagoenez, indarkeria asko eta asko ez dira salatzen Kolonbiako Fiskaltza Nagusian, gerora seinalatuta geratzearen beldurrez. Gainera, herritarrak babestu behar dituzten erakundeek ez dituzte kontuan hartzen herriaren defendatzaileak egiten dituen alerta goiztiarrak.

Egoera horretan, Ipar Caucako herri beltzaren ordezkariak aitortzen dute Kolonbiako gobernuaren saiatzen dela Erabateko Bakearen politika publikoaren esparruan talde armatuekin hitz egiten, eta, euren ustez, benetako erronka da hori. Azkenik, Errepublikako presidenteorde Francia Márquez andrearen jardunaren balioa azpimarratu zuten eta masa-komunikabideek diskriminatu eta tratatu txarra ematen diotela salatu.

ESKAERAK:

- Erakunde-egituraketa handitzea, ez errepikatzearen eskubidea bermatzeko.
- FARC-EPren eta Kolonbiako gobernuaren arteko Bake Akordioa oso-osorik betetzea, bereziki etniei buruzko kapitulua, Ipar Caucako herri etnikoak babesteko.
- 2015-2035 urteetarako Bizi Onaren Plana Garapen Planetan sartzea. Gaur egun herri beltzak ez du estatuaren inolako diru-transferentziarik jaso, planean aurreikusitako programak eta helburuak efizientziaz ezarri ahal izateko. Beharrezkotzat jotzen dute, gai-ardatz bakoitzaren arabera, ezarpenerako partida bat egotea ministerio bakoitzaren aurrekontuetan.

- Lurrak itzultzeko prozesuan aurrera egitea. ACONCn biltzen diren Kontseilu Komunitarioentzako lurren erosketak, Lurren Agentzia Nazionalan (ANT) erregistratutako eskarien arabera, modu efizientean aurrera egin behar du eta, horretaz gain, elikadura-burujabetza defendatzeko programak ezarri behar dira.
- ACONCn biltzen diren Kontseilu Komunitario guztiak biktimen erregistro bakarrean sartu ziren Bakerako Jurisdikzio Bereziaren (JEP) 2019ko 047 Autoari erantzunez; auto horrek Kontseilu Komunitario guztiak gatazka armatuaren biktimatzat jotzen ditu. Biktimentzako Unitateak, arlo horretan erakunde eskuduna den heinean, aitortza hori ezagutu behar du. Erreparazio Plan Integraleko bosten ezarpenean bakarrik egin da aurrera.

BIKTIMENTZAKO UNITATEKO GATAZKA ARMATUAREN BIKTIMEN ERREGISTRO BAKARREAN SARTU EZ DIREN KONTSEILU KOMUNITARIOAK

MIKRO ARROA	UDALERRIA	KONTSEILU KOMUNITARIOA
Cauca Alto	Suarez	Portugal
Cauca Medio	Santander de Quilichao.	Afro Lomitas
Cauca Plano	Puerto Tejada	Monte oscuro.
	Puerto Tejada	Rio Palo.
	Puerto Tejada	Riveras del Rio Palo la Paila.
	Villarrica	Quebrada Tabla.
	Caloto	Rio Palo Quintero
Rio Desbaratado	Miranda	Afromirandehños.
	Padilla	Unión Yaru.

- Barne Arazoetako Ministerioko Giza Eskubideen Zuzendaritzak Kontseilu Komunitarioetako barne-erregelamenduak indartzea; erregelamendu horietan garatuta daude Bizi Onaren Planak eta Ipar Caucako Herri Beltzaren Antzinako Justizia Sistema.
- Berdintasun- eta parekidetasun-politikan aurrera egitea, bai erakundeen goi-ordezkaritzaren esparruan, bai eta tokiko egituretan ere. Kolonbia emakume guztientzako herrialdea izan behar da eta egiturazko matxismoa eta arrazismoa gainditu behar dira.
- Babes indibidual eta kolektiboko mekanismoak ezartzea, genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi diferentzialarekin, eta mekanismo propioak indartzea: Guardia Cimarrona eta Guardia Indigena.



EAEko ordezkariak ACINeko ordezkariekin (Santander de Quilichao, Cauca)

Medellín (Antiokia)

Antiokia departamenduan Emberá Dóbida, Emberá Chami, Emberá Eyabida, Senú eta Tule herrietako 40.000 biztanle daude (%51,5 gizonak eta %48,5 emakumeak); zazpi azpieskualde ditu (Urabá, Mendebaldea, Hego-mendebaldea, Iparraldea, Bajo Cauca, Ipar-ekialdea eta Magdalena Medio); eta 31 udalerrri, gatazka ondorengo eremuak direnak. 220 komunitate eta 51 babesgune daude.

Antiokiako Elkarte Indigenako (OIA) ordezkariak, EAEko ordezkariekin bilduta, esan dute herri horiek sarraski-arriskuan daudela (fisikoa, kulturala, lurraldekoa eta epistemologikoa).



EAEko ordezkariak OIAko ordezkariekin (Medellin, Antiokia)

Kolonbiako gobernuak eta FARC-EPk Bake Akordioa sinatu eta gero, desmobilizatuek libre utzi zituzten espazioak ELNk, FARCen disidentziek eta AGCk hartu zituzten. Indar Publikoak ez ziren lurraldeetara joan, eta, horregatik, urtebeteko barealdia eta gero (2016), indarkeria handitzen hasi zen, nagusiki Bajo Cauca eta Medio Atrato (Chocó).

AGC da ordutik aurrera gehien hazi den taldea. Debekatutako laboreak, narkotrafikoa eta legez kontrako meatzaritza kontrolatzeko gatazkak sortzen ari dira. Drogaren negozioa aldatzen ari da, eta Kolonia herrialde esportatzaile izatetik herrialde kontsumitzaile izatera pasatzen ari da.

Talde horien presentziak eta beraien arteko liskarrek kalte handiak sortzen dituzte komunitateetan: lurralde indigenetatik ibiltzea eta horiek okupatzea (beste batzuen artean, beraien mundu-ikuskerarekiko errespetua urratuz); gizarte- eta lurralde-kontrol handia; mugikortasun-murrizketak; liderrak eta komuneroak mehatxatzea, seinalatzea eta erailtzea; etxeratze-aginduek eta desplazamendu masiboek eragindako larrialdi humanitarioak; pertsonen aurkako minek eragindako istripuak eta heriotzak; gatazkan umeak eta gazteak erabiltzea; promesa ekonomiko edo materialen bitartez behartuta edo borondatez egiten diren errekrutamenduak; eta animaliak lapurtzea, bestelako egitate biktimizatzaileen artean.

Indarkeriak lidergo sozialetan metatzen ari dira. Talde armatuak (bereziki AGC) aldatzen ari dira eta beren estatus juridikoa aldarrikatzen ari dira erakunde komunitarioak (indigenak, afroak eta nekazariak) kooptatzeko estrategien bitartez.

OIAk Erabateko Bakearen politika publikoa babesten du. 2021etik aurrera erakundeak ELNren Bake Kudeatzailetzarekin elkarrizketak izan ditu, eta desplazamendu-egoeran edo mehatxupearan dauden kide indigenen inguruko informazioa partekatu dute. Espero dute taldeekin egiten ari diren negoziazioetan aurrerapenak egingo dituztela, lurraldeetako setioak bukatu daitezen, baina esan dute bakea ez dela bakarrik talde armatuekin hurbilketak egitea eta hitz egitea, baizik eta gobernuak eta erakundeak lurraldeetan presente egon behar direla eta osasun-, hezkuntza-, eta garapen-programak eta azpiegiturak ezarri behar dituztela (adib., ura herritar guztientzako eskuragarri egotea). Aurreko guztia, ikuspegi diferentzial indigena eta afroa aintzat hartuta egin behar da.

Indarkeria matxistei dagokienez, emakume indigenentzat oso zaila da justizia arrunterako sarbidea izatea. Eta justizia propioak ere ez du horretarako tresna egokirik.

Aitortzen dute Kolonbiako gobernuaren diskurtsoa aldatu dela, baina aurkako jarrera indartsua da eta komunikabideak aurka daude. «*Gauza bat da gobernuak gure esku izatea, eta beste bat boterea izatea*».

Azkenik, esan dute energia-trantsizioko politikek lurraldean izango dituzten ondorioengatik kezkatuta daudela, besteak beste, kobre-ustiapena dela-eta.

ESKARIAK:

- Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioa eta etniei buruzko kapitulua osorik ezartzea.
- Talde armatuei exigentzia gehiago jartzea negoziazio-prozesuetan. Lurralde-bakea eraikitzeko beharrezkoa da behartutako errekrutamenduak eta desplazamenduak, eta lidergo indigenen aurkako presioak eta indarkeriak gelditzea.
- Errepublikako Kongresuan Men egitearen Legea sustatzea, AGCrekin eta Valle de Aburrán eta Buenaventuran eragin handia duten banda kriminalekin negoziatu ahal izateko.
- Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenak (ONIC) zuzenduta, herri indigenen Bakerako Agenda Nazionala finkatzen aurrera egitea, herri horiek bakea eraikitzen aktiboki parte hartzen dutela bermatzeko oinarrizko pauso gisa.
- Lurralde-antolamenduko politikak garatzean prozesu indigenak errespetatzea. Gainera, beharrezkoa da lurralde indigenetan meatzaritza legala eta legez kanpokoa gelditzeko politika eta ekintza argiak definitzea.
- Lurren Agentzia Nazionalak (ANT) aurrera egitea lurrak erosten, titulatzeko eta handitzen, eta bereziki kontuan hartzea Antiokiako Biktima Indigena Zenuen Elkartean (ASPIZA) antolatuta dauden desplazatutako 40 familia zenuak.
- ASPIZAn antolatuta dauden desplazatutako 40 familia zenuak birkokatzea; jada sartuta daude Biktimen Erregistro Bakarrean.
- Herri indigenek eta herri beltzak osasun- eta hezkuntza-eskubidearen gaineko egiturazko erreformak eraikitzen parte hartzea sustatzea eta erraztea.



EAEko ordezkariak Caucaoko giza eskubideen aldeko erakundeetako ordezkariekin (Santander de Quilichao)

- Antiokiako Herri Indigenen Bakearen eta Giza Eskubideen Eskualde Kontseilua sustatzeko laguntza politiko eta finantzarioa ematea[5].
- Babes indibidual, familiar eta kolektiboko mekanismoak ezartzea, genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi diferentzialarekin, eta mekanismo propioak indartzea: Guardia Cimarrona eta Guardia Indigena.

Antolamendu-prozesuetako lurraldeetan (besteak beste, Cauca eta Antiokian) bizitza duinak defendatzeko borroka kolektiboei esker, Río Cauca eskubidedun subjektu gisa deklaratu zen eta haren biktima-izaera aitortu zen Medellingo Auzitegi Nagusiaren 2019ko ekainaren 17ko 038 Epaian eta Bakerako Jurisdikzio Bereziaren (JEP) 226 Autoaren bidez. 005 kasua: «Ipar Caucako eskualdeko eta Valle del Caucako hegoaldeko lurralde-egoera».

ERAKUNDEEI HELARZITAKO KEZKA NAGUSIAK

EAEko ordezkariak Santander de Quilichaora eta Medellinera egindako bisitetan egiaztatu dute gatazka berreratzen ari dela eta komunitate etnikoen aurkako indarkerien hazkundera kezkarria dela; horren ondorioz, larria da bizitzak defendatzeko berme-falta eta gizarte-lidergoak indarkerien jomuga izatea. Emakume, neskato eta nerabeen aurkako sexu-indarkeria gerra-arma gisa erabiltzea oraindik ere ohiko estrategia da gatazkan. Indarkeria horiek sortzen dituzten kausen artean daude, besteak beste, zigorgabetasun-maila handia eta egile intelektualak ikertzeko, judzializatzeko eta zigortzeko prozeduretan aurrerapenik ez dela egiten; edo Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioa ez dela ezartzen ikuspegi diferentzialarekin eta genero-ikuspegiarekin.

Hauek guztiak salatzen ditugu: askotariko legez kanpoko talde armatuak lurraldeetan sortzen ari diren indarkerien betikotzea eta eraberritzea. Hau da, askotariko gizarte- eta lurralde-kontrolako estrategiak erabiltzen dituzte; adibidez, antolamendu- eta komunitate-prozesuen kooptazioa, mugikortasun-debekuak, jokaera-arauen ezarpena, etxeratze-aginduak eta askotan umeak eta gazteak behartuta errekrutatzea, edo herritarrak kontrolatzeko estrategiak aplikatzen dituzte, besteak beste, mikrotrafikoa, engainuak edo derrigortzeak. Narkotrafikoa eta bestelako legez kontrako ekonomiak (debekatutako laboreak edo meatzaritza) talde horiek finantzatzeko moduak dira, eta, orobat, herrialdean indarkeria eta gatazka betikotzen dituzten elementuak dira.

[5] Antiokiako Herri Indigenen Bakearen eta Giza Eskubideen Eskualde Kontseilua da OIAko Giza Eskubideen eta Bakearen Kontseilaritzak zuzentzen duen testuinguru politikoa, antolamenduzkoa eta erabakitzeakoa. Gobernu-aginduen bidez, departamenduko bost herriek, gobernu indigenatik, diagnostikoak eta analisiak egiten dituzte, eta sozializatu, salatu eta ezagutarazi egiten dizkiote Kolonbiako gobernuko eta sektore humanitarioko inistantziei.

Gustavo Petrok eta Francia Márquezek gidatutako gobernuak sustatzen duen Erabateko Bakearen politika publikoaren esparruan, herri etnikoek gehiago parte hartzeko eta herri horiei entzuteko eskaria sendoa da. Eta oso kezagarria da legez kanpoko talde armatuek negoziazio-mahaietan beren indarra erakusteko duten modua biztanleria zibilaren aurkako indarkeriak sortzea izatea.

Azkenik, erakunde-egituraketa handitzea oinarrizko lehen pausoa izan daiteke berriro ez errepikatzearen eskubidea bermatzeko.

ERAKUNDE-BILERAK ETA HARTUTAKO KONPROMISOAK

EAEko ordezkariak erakunde publikoetako ordezkariekin (Antiokiako Gobernazioko Giza Eskubideen Zuzendaritza, Lurren Agentzia Nazionala (ANT) eta Herriaren Defendatzailea) eta nazioarteko erakundeekin (NBERen Egiaztatze Misioa eta Iheslarietako Nazio Batuen goi-komisarioa (UNHCR)) bildu ziren Medellinen.



Orokorrean, lurraldeetan jasotako analisiarekin bat datorren analisia helarazi ziguten. Adierazi zuten indarkeria-dinamika orokortua dela eta landaguneetan nekazarien, indigenen eta afroen komunitateei neurrigabe eta bereziki eragiten diela, gehienbat haien liderrei. Horretaz gain, esan zuten isiltze sistematikoko estrategia ezartzen dela eta lidergoak eta antolamendu-prozesuak kooptatzen direla.

Herriaren Defendatzailea kezkatuta dago erakundeek ez dituztelako alerta goiztiarrak kontuan hartzen eta ez dutelako kaltea prebenitu edo arintzeko ekintza-planik sortzen.

2016an Bake Akordioa sinatu zenetik estatua ez da lurraldeetan presente egon. 2017an eta 2018an ez zen espazio hori hartu eta, ondorioz, legez kanpoko talde armatuak lurraldean hedatzen eta elkarren aurka borrokatzen hasi ziren. Antiokian AGCk asko hedatu da eta hori arintzeko akordioa sinatu zuten ELNk eta EMCK. Hori guztia, herritarren autonomia eta segurtasuna errespetatu gabe. Gatazka horien ondorioz, matxinatuen aurkako diskurtsoak indartu dira eta komunitate etnikoak, giza eskubideen kolektiboak, bakearen aldeko sinatzaileak eta senideak larriki seinalatzen ari dira.

OIAk Medellinen jakinarazi zigun lurraldeen gaineko kontrol sozial indartsua ezartzen dela, eta horixe baieztatu zuen Herriaren Defendatzaileak. Nagusiki AGC da horien erantzulea, baina baita gerrillen arteko aliantzak ere; mugikortasun-murrizketak, etxeratze-aginduak, lurraldeetan sartzeko baimen-eskaerak, janzkera- eta jokaera-arauak eta horiei dagozkien zehapenak ezartzen ari dira, eta 14 urtetik gorako guztiek nahitaez parte hartu behar izaten dute taldeek deitutako bileretan. Prozesu komunitarioetan egiten ari diren esku-hartze bidegabe horietan komunitateak matxinatzera behartzen ari dira (hau da, armada komunitatetik ateratzera), bereziki debekatutako laboreak dituzten lurraldeetan. Egoera horretan, Ekintza Komunaleko Batzarretako (JAC) liderrak armadak egindako salaketa penalei aurre egin behar diete, armadak ez baitu ulertu nahi behartuta dihardutela.

AGC hedatuta, biztanleria zibilaren aurkako indarkeria hazi da eta 1990eko hamarkadako izu-dinamika paramilitarrak itzuli dira (torturak, krudelkeria, sexu-indarkeria arma-gerra gisa erabiltzea...).

Baieztatu zuten errekrutamenduak ugaritzen ari direla landaguneetan, udal-buruetan eta hiriguneetan, gazteak borrokalari edo mikrotrafikoaren arduradun bihurtu daitezten. Modu horretan kontrolatzen dituzte banaketa-plazak eta baliabide ekonomikoak eta lurralde-kontrol (zaintzaileak eta informatzaileak) handiagoa lortzen dituzte. Neskatoak eta neska gazteak emazte edo sexu-esklabo bihurtzen dituzte.

Aurreikusten denaren arabera, indarkeriak eta kontrol sozialak gora egingo dute.

Bileran parte hartu zuten erakundeek esan zuten OIAk egindako eskariak, EAEko ordezkariak bat datozenak, berrikusi eta jarraipena egingo zietela (ikus atal hau: lurralde-testuingurua).

EAEko ordezkariak **Bogotan** elkartu ziren erakunde publikoetako, nazioarteko erakundeetako eta kidego diplomatikoetako ordezkariekin. Ondorengoekin egindako bileretan konpromisoak hartu ziren, batzuk orokorrak eta beste batzuk aldiz, espezifikoagoak:

Babeserako Unitate Nazionala (UNP)

Testuinguru orokorraz gain, EAEko ordezkariak eskaera espezifiko batzuk egin zizkieten UNPri. Lurralde guztiek uste dute beharrezkoa dela babes kolektiboan eta familiarrean aurrera egitea eta babes-politikan ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia ezartzea. Esleitutako babes-neurriak azkarrago ezartzea eta babes-sisteman azpikontratazioarekin bukatzea ere eskari errepikatuak dira.

Arazo koiunturalek (adibidez, gasolinaren prezioaren egungo hazkundeak) nabarmenki mugatzen dute haien mobilizatzeko gaitasuna; beraz, beraien babesaren ere bai. Azkenik, zalantzak dituzte babes-sistema aldatzeari buruz, eta ez dakite Herriaren Defendatzailearen Alerta Goiztiarren Sistema (SAT) arriskuaren analisietan kontuan hartzen ote den.

UNPk aurrerapenak egin direla eta aurre egin beharreko erronkak dituztela aitortzen du. Diotenez, eskema indibidualetatik haratago joan nahi dute, eta lurraldeko neurri diferentzialetan aurrera egin (babes familiarra eta kolektiboa).



Diotenez, beren abiapuntua da fede onaren printzipioa eta giza eskubideak defendatzen dituztenek esandakoa sinestea, eta analistak aldatu dituzte, besteak beste, genero-ikuspegian esperientzia dutenak hautatuta.

Aitortu zuten beharrezkoa dela erakundeak egituratzea eta lurraldeei eskumenak ematea (osasun-zerbitzuak, hezkuntza, lurraldeetako azpiegiturak, etab., eskuragarriak izatea), arrisku-mailen azterketak berandu egiten ari direla eta Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak konpromiso txikia duela ikerketan eta akusazioan.

Egindako aurrerapen batzuk ere aipatu zituzten, azaletik: alerta goiztiarren taldeak Herriaren Defendatzaileak emandako gomendioen jarraipena egiten du, Konstituzio-kontrako Gauzen Egoera deklaratzeko duen epaia ezartzen ari dira eta aurrerapausoak eman dira 2021eko 1139 Dekretua indargabetzeko (Barne Arazoetako Ministerioaren eskumena) eta Larrialdi Planaren barneko beste dekretu batzuk aldatzeko. Esan ziguten, halaber, ibilgailu propioak erosten dituztela zailtasun batzuk konpontzeko edo plantilla formalizatzen dutela azpikontratazioaren arazoak ekiditeko.

Hobekuntza-aukera batzuk aipatu zituzten, besteak beste, Errepublikako presidenteak eta UNPren zuzendariak erakundea modernizatzeko hartu zuten konpromisoa, bestelako babes-eredu baterantz aurrera egiteko, komunikazio-sistemak hobetzeko edo beste erakunde batzuekin antolatzeke.

Lurraldeetan babes kolektiboaren inguruan jasotako eskaerak jakinarazi eta gero, esan ziguten ACONCren eta OIAren arrisku-maila lehenesteko konpromisoa hartu dutela; biek ere babes kolektiboko eskemak dituzte.

Horretaz gain, EAEko Babes Programarekiko komunikazio-kanalak irekita mantentzeko konpromisoa azaldu zuten, bertan parte hartzen duten giza eskubideen defendatzaileen egoera lantzeko.

Lurraldeetan babes kolektiboaren inguruan jasotako eskaerak jakinarazi eta gero, esan ziguten **ACONCren eta OIAren arrisku-maila lehenesteko konpromisoa hartu dutela**; biek ere babes kolektiboko eskemak dituzte.

Horretaz gain, EAEko Babes Programarekiko komunikazio-kanalak irekita mantentzeko konpromisoa azaldu zuten, bertan parte hartzen duten giza eskubideen defendatzaileen egoera lantzeko.

Barne Arazoetako Ministerioa- Giza Eskubideen Zuzendaritza

Azaldu genuen geuk ere uste dugula beharrezkoa dela lurraldeetan babes familiar eta kolektiboko eredu baterantz aurrera egitea, 2021eko 1139 Dekretua indargabetzea, erakundeak koordinatuta egotea eta arriskuen analisirako metodologia berriak egotea.

Giza Eskubideen Zuzendaritzak bilera hastean Presidentetzaren 2023ko 07 Zuzentarauaren balioa azpimarratu zuen; horren bitartez, giza eskubideen defendatzaileen lana aitortzen da.

Bermeen Mahai Nazionala eta lurralde-mahaiak (aurreko gobernuak deitu ez zienak) berriro aktibatu direla esan zuten eta aitortu zuten zaila dela herritarrekin politika publikoak antolatzea. Izan ere, gobernazio eta alkatetza asko eskuin muturrekoak dira.

Lidergo sozialak pairatzen ari diren indarkeriari eta Erabateko Bakearen politika publikoari dagokienez, esan zuten egoera hori oinarritzko araua izan behar dela elkarrizketekin jarraitu ahal izateko. Halaber, aitortzen dute Kolonbiako Fiskaltza Nagusiak baduela zertan aurrera egin, artikulazio instituzionala behar dela, ministerio guztiak babeserako aurrekontuz hornitu behar direla eta Kolonbiako estatuaren egiturak aldatzeko zailtasunak daudela.

Azkenik, egitasmo baten berri eman ziguten: giza eskubideen defendatzaileek pairatzen dituzten erasoei berehala erantzuteko txata. **Esan ziguten tresna eta bere erabilera eskuragarri jarriko dizkigutela**, EAEko Babes Programako erakundeekin partekatzeke.



Biktimentzako Unitatea

Biktimentzako Unitateak, hasteko, Eusko Jaurlaritzari eskerrak eman dizkio EAEn Egiaren Batzordearekin (CEV) eta erbestealdiekin lotuta egindako lanarengatik. Herrialdetik kanpo 27.000 biktima daude aitortuta. Esan zuten, orobat, EAEko lankidetzak presente dagoela gatazkak irauten duen lekuetan.

Gobernu berri horren esparruan, Garapenerako Plan Nazionalak biktimen politika nazionala ebaluatzea aurreikusi du. Atzerapenak baloratzen eta helburu berriak planteatzen ari dira. Erreparazio kolektiboko 900 plan inguru daude eta horietatik % 70 etnikoak dira. Gobernu-aldaketa egin zenean 700 plan zeuden, eta, horietatik, bakarrik 50 zeuden ezarpen-prozesuan. Helburua 300 planera iristea da. Zailtasunak dituztela diote, legez kanpoko talde armatuek erreparazio kolektiboko subjektuen aurkako ekintzak gauzatzen baitituzte behin eta berriz.

Lurralde-ikuspegia ezartzeko lanean ari dira Nazio Batuekin koordinatuta irtenbide iraunkorreko estrategiak garatuz, eta herri indigenekin aurretiazko kontsultak egiten ari dira ikuspegi diferentzialak ezartzeko, bereziki, herri etnikoekin lotuta.

Herrialdetik kanpo dauden biktimekin CEVren gomendioei jarraitu diete eta Desagertutako Pertsonak Bilatzeko Unitatearekin (UBPD) eta JEPekin lanean ari dira ibilbide komuna izateko.

Erronka honetan datza: gatazkaren erdian erreparatzea, Gurutze Gorriarekin eta estatuko beste erakunde batzuekin koordinatuta Erabateko Bakearen politika publikoaren esparruan. Apustuetako bat lurralde-erlaldaketa eta eraldaketa kolektiboa lortzea da, eta, horrenbestez, beharrezkoa da lurralde-babeseko ikuspegia ezartzea.

Dekretu bat prestatzen ari dira konfinatuta dauden komunitateentzat, eta alkatetzekin, gobernazioekin eta erakundeekin lanean ari dira desplazatutako pertsonen eskubideak bermatzearen arloko egiturazko akatsa konpontzeko.

Esan ziguten ahalegin handia egiten ari direla dekretu etnikoak ezartzeko, azken hamabost urteetan ia ez baita aurrerapenik egin arlo horretan. Eta aitortu zuten Kolonbiatik eta atzerritik jende gehiago etortzea behar dutela giza eskubideen defendatzaileak babesteko, nagusiki komunitate etnikoen lurraldeetan.

Lurraldeetan jasotako eskaera espezifikoei dagokienez, EAEko ordezkariak bat gatz Biktimentzako Unitatearen eskaera hauekin:



- **ASPIZA elkartean antolatuta dauden eta Medellinera desplazatu zituzten 40 familiak birkokatzea;** jada sartuta daude Biktimen Erregistro Bakarrean. Eskaera horren helburua da beraien mundu-ikuskera eta ohiturak mantentzea, desagertze-arriskuan baitaude. Informazioa jasotzen dutenean eskaera bideratuko dutela esan dute.
- **ACONCn antolatuta dauden Kontseilu Komunitario guztiak Biktimen Erregistro Bakarrean sartzea,** gatazkaren biktima gisa aitortzen dituen JEPren 047/2019 Autoa betez. Informazioa jasotzen dutenean eta ibilbidearen zein egoeratan dauden dakitenean **eskaera bideratzeko konpromisoa hartu dute.**

Garrantzitsua da eskaera horiek erakunde biek Lurren Agentzia Nazionalarekin (ANT) dituzten eskariekin batera eratzea.

Lurren Agentzia Nazionala (ANT)

Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren artean sinatutako Bake Akordioaren «Erabateko Landa Erreforma» 1. puntuan ezarrita dago 7.000.000 hektarea formalizatuko direla (jabetza legeztatzea) eta 3.000.000 hektarea esleituko direla (behar adina lur ez duten edo inolako lurrik ez duten landa-biztanleei esleituko zaizkie). Errepublikako presidentek azken horren alde lan egin du.

Lurraldeetan jasotako eskaera espezifikoei dagokienez, EAEko ordezkariak bat gatz ANTren eskaera hauekin:

1. Orokorrean, Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioaren «Erabateko Landa Erreforma» 1. puntuan aurrera egitea eskatu da.
2. Zehazki, erosketa-prozesuak, titulu-emateak eta lurren handitzeak azkarrago egiteko aldarrikatzen dugu. EAEko ordezkariarentzat interes berezikoak dira kasu hauek:
 - ASPIZA. Egoera horretan dauden 40 familia, Biktimentzako Unitatearen erregistro bakarrean sartuta daudenak. Lurrak erosteak haiek birkokatzeko aukera emango du eta, horrenbestez, beren mundu-ikuskerak, erabilerak eta ohitura propioak mantendu ahalko dituzte.
 - OIARI lotutako indigena zenuen onibarrak El Bagren (Antiokia).
 - ACONC. Kontseilu Komunitarioekin lurrak itzultzeko prozesuan aurrera egitea, erregistratutako eskaeren arabera. Prozesu hori elikadura-burujabetza defendatzeko programekin batera gauzatu behar da.
3. Garrantzitsua da eskaera horiek erakunde biek Biktimentzako Unitatearekin dituzten eskariekin batera eratzea.
4. Gainera, kezkatuta daude lurraldeetan gertatzen ari diren etnien arteko gatazkekin, lurra eskuratzeko lehiak, lege kanpoko ekonomiak eta ingurumen osasuntsuan sortzen duten inpaktua direla-eta.

Berdintasun eta Ekitate Ministerioa

Ministerioko ordezkariak EAEko ordezkariari esan zieten bakea eraikitzea dela haien lehentasunetako bat. Hala, Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioetan genero-neurriak ezartzea eta lurraldeetan emakumezko liderrak babestea ezinbesteko bi ardatz dira.

Erronka estatuaren dinamikatik haratago joatea da, oraindik ere zentralista izaten jarraitzen baitu, eta politika publikoak territorializatzea. Horretarako, tokiko gobernuekin estrategia bat diseinatzen ari dira garapen-planetan ekintzak sartu ditzaten, besteak beste, 1325 Ebazpenari lotutakoak [6].

UNPk ematen dituen babes-neurriari dagokienez, aitortzen dute babes-babesa falta dela, eskemak kendu direla eta neurriak ezartzerako orduan genero-alborapenak daudela. Giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen arriskuak gutxiesten direnez, beharrezkoa da, besteak beste, arrisku-analistak eta justizia-operadoreak trebatzea eta emakumeek ehuntzen dituzten komunitate-sareen autobabeserako neurriak indartzea.



Lanean ari dira, orobat, emakumeek lurrak eskuratu ditzaten, Nekazaritza Ministerioarekin eta landa-emakumeen bulegoekin egindako aliantzen bitartez.

Generoan oinarritutako indarkeriei dagokienez, Salvia sistema aurkeztu dute, detekzio, arreta eta jarraipenerako erregistro-sistema. Horren helburua da indarkeria-kasuetan arreta emateko ekintza guztiak bateratzea.

Ekimen horiek guztiak emakumeentzako dira orokorrean, eta giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeak babes berezia duten kolektiboak dira.

[6] Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren Emakumeen, Bakearen eta Segurtasunaren 1325 Ebazpenak (2000) premiatzen du emakumeek partaidetza eta ordezkartza handiagoa izatera gatazken prebentzioan, kudeaketan eta irtenbideetan, eta, halaber, emakumeen eta neskatoen giza eskubideak babesten eta errespetatzen direla bermatzen.

Esan zuten beharrezkoa dela erakundeak artikulatzea, eta aipatu zuten Presidentetzaren 2023ko 001 Zuzentarauak erakunde publiko guztiei [7] genero-politikak —baliabideekin eta ekintza-ibilbideekin— sortzeko betebeharra ezartzen diela.

Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioan Kontseilaritza Preseidentziala

Kontseilariak komunitateek lurraldeetan egindako analisia partekatu zuen. Esan zuen gatazkaren dinamikak berreratzen ari direla eta konplexuagoak bihurtzen dituzten lurralde-aldagaiak daudela.



Jardule armatu guztiek ez dituzte jokaera berberak lurralde guztietan. Zigorgabetasunaren egiturazko arazoa eta Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioek ezarpen-maila txikia izatea dira indarkeria horien kausetako batzuk, eta horregatik egin du gobernuak Erabateko Bakearen aldeko apustu anbiziotsua. Jarduleen dinamika aldatzeko apustua da; izan ere, ugaritu egin dira eta beren ekintza-gaitasuna handitu dute. Apustu hori zuzenean lotuta dago giza eskubideak bermatzearekin eta babestearekin.

2023ko Presidentetzaren 07 Zuzentaruak erronka bat da. Zuzentaruak xede dituen erakunde guztiek nahitaez bete behar dute, eta oso garrantzitsua da funtzionarioen imajinarioak deseraikitzeke.

Babesari dagokionez, egungo eredia erabat berraztertzearen alde dago. Babes indibiduala eta errektiboa beharrezkoa da batzuetan, baina ez da jasangarria eta ez litzateke orokortasuna izan behar. Beharrezkoa da prebentzio-politikak eta babes kolektiboa indartzea.

Paradigma aldatu da aurreko gobernuarekin alderatuta, eta giza segurtasunaren aldeko apustua egiten da. Defentsa Ministerioaren ekintzak paradigma berri horretatik eta horri dagozkion adierazleetatik neurtu behar dira.

[7] Emakumeen aurkako eta generoan eta/edo arrazan, etnien, erlijioan, nazionalitatean, ideologia politikoan edo filosofikoan, sexuan edo sexu-orientazioan edo desgaitasunean oinarritutako, eta lan-eremuko eta sektore publikoko kontratuen eremuan gertatzen diren gainerako diskriminazio-arrazoietan oinarritutako indarkeria mota guztiak prebenitu eta horiei erantzuteko protokoloa eta babes-neurriak; eta emakumeek benetan parte hartzea administrazio publikoko instantzietan.

Azkenik, tresna lotesle baten alde egiten dute, enpresen ekintzak fiskalizatzeko eta giza eskubideak bete ditzaten.

Bakerako goi-komisarioa

Erabateko Bakearen politika publikoaren ardatz nagusia babesaren da; apustua oso anbiziotsua eta berritzailea da, gatazkak 60 urte bete dituen honetan. Ikuspegi militarretik konfiantza eratzera eta elkarrizketetara igarotzen gara, hau da, sektoreen arteko artikulaziora, Bakearen Akordioa edo Justiziarik men egitea lortzeko (estatuak Indar Publikoaren monopolioari uko egin gabe). Politika hori Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioarekin egituratu behar da. Aurreko gobernuaren arretoa-falta akats oso larria izan zen.

Esan zuten UNPren krisiak zalantzan jartzen duela estatuak babesaren eta segurtasunaren arloan gauzatutako gobernantza eta, horrenbestez, beste modu batera heldu behar zaiola arazoari.

2022ko 2272 Legeak Bakerako goi-komisarioaren eginkizunaren lege-printzipio arautzailea ezartzen du eta bi prozedura hauek finkatzen ditu:

- Jatorri politikoko talde armatu ez-estatalekin (ELN, EMC) elkarrizketa-mahaietan aurrera egitea.
- Inpaktu kriminal handiko talde gisa izendatutako talde armatu ez-estatalekin elkarrizketa soziojuridikoetan aurrera egitea.

2016ko Bake Akordioan ez bezala (adostasuna, edo erabatekoa, edo ezer ez), oraingoan, akordioak kasuan-kasuan egin ea ezartzen dira.

Aldebiko su-etenek, lurralde-dinamiketan konplexuak diren arren, eragin positiboa izan dute gatazkak moteltzeko orduan.



Lidergoen kooptazio-estrategiari legez kanpoko talde armatuek GKEak sortzea gehitu zaio, besteak beste, Putumayo, Caqueta edo Nariño lurraldeetan.

Azkenik, esan digute 24/7 larrialdi-zerbitzu bat martxan jarri dutela, eta jardule armatuekin lotuta lurraldeetan gertatzen diren egoera guztiei erantzuten dietela: borrokak, bahiketak, errekrutamenduak... Tratamendu konfidentziala du eta azaldu digute **konpromisoa hartzen dutela informazio hori partekatzeko EAEko Babes Programarekin elkarlanean ari diren erakundeekin.**

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren Bulegoa (OACNUDH-Kolonia):

ACONCK eta OIAK lurraldeetan egin duten analisia partekatu dute. Bulegoa datuak jasotzen hasi zenetik (2012an), 2022a izan zen biolentoena, eta Cauca departamenduan gertatu ziren egitate biktimizatzaile gehien. Legez kanpoko talde armatuak asko hedatu dira eta, horrenbestez, sarraski, konfinamendu, desplazamendu behartu eta errekrutamendu asko gertatzen ari dira.

Ereduak aurreko urteetako antzekoak dira: indarkerien eta kooptazioen jomuga dira lidergo sozialak eta tokiko agintaritzak, antolakuntza-prozesuak hausteko helburuarekin. Nasa eta awa herrien kasuak bereziki adierazgarriak dira. Argi dago asmoa dela gobernu propioekin, bertako kulturarekin, mundu-ikuskerekin eta guardia indigenekin bukatzea. Ekintza Komunaleko Batzarrak gizarte- eta lurralde-kontrolerako tresna bihurtu dira.

Gobernua politika publikoak lantzen ari da giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta prebentzio-lana egiteko. Bermeen Politika Nazionalak bultzada eta funtzionamendu handiagoa behar du. Barne Arazoetako Ministerioaren Giza Eskubideen Bulegoa ere lan egiteko prest dago, eta estrategia bat planteatu du indarkeria-maila handienak dituzten lurraldeak identifikatzeko. Hala eta guztiz ere, baliabideak, babes politikoa eta beste erakundeen borondatea falta dira. Lana oso zatikatuta dago eta erabakiak ez dira azkar hartzen.

Diotenez, giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoek, agresioek eta erailketek zigorgabetasun handiak dituzte, eta Kolonbiako Fiskaltza Nagusiaren ekintzek oso opakua izaten jarraitzen dute. Fiskal berriak nolabaiteko itxaropena sortu du.

Babeserako Unitate Nazionala (UNP) krisi-egoeran dagoelako iritzia dute. Uste dute babes-ibilbidera sartzea erraza izan arren, prozesua konplexua dela, neurriak berandu ezartzen direla (sei hilabete) eta askotan ez direla nahikoak (adib., txalekoa eta telefono mugikorra). Gainera, banakako segurtasun-ikuspegia ez da jasangarria; estatuak oraindik ere ez du ikuspegi kolektiboa ulertzen, ezta ezartzen ere, eta eguneratu gabeko arriskuen analisia erabiltzen jarraitzen du, askotan arriskuan dauden pertsonak zigortzen dituen (autobabeserako mekanismoak ezartzen badira, leku-eskemak alboratzen dira, osagarritasunean oinarritu beharrean), eta analistek zenbaitetan arriskuak gutxiesten dituzte eta ez dute konfiantzarik giza eskubideen defendatzaileengan eta beren kontaktetan.

Babes-eredua birplanteatzen saiatzen ari dira prebentiboagoa izan dadin, eta Indar Publikoak eta estatuak lurraldeetan eginkizun presentziala izan dezaten.

Azkenik, 2021eko 1139 Dekretuak eragindako atzerakada aipatu dute, karga osagarriak ezarri baitzitzaizkien babestutako pertsoneri; besteak beste, frogatu behar zuten familia eta beren kargupekoak ere arriskuan zeudela, edo babes kolektiboko mekanismoen indarraldia urtebetera mugatu zuten. Larrialdi Planak (Bermeen Plan Nazionalerako trantsizioak) aurrekoa indargabetzea xedatzen zuen arren, oraindik ez da horrelakorik gertatu.

OACNUDHk EAEko Babes Programan parte hartzen duten erakundeen, komunitateen eta kolektiboen eta herrialdeko erakundeen arteko **komunikazio-kanala izateko konpromisoa hartu du**, eta **testuinguru- eta arrisku-analisiak egiteko** informazio-iturria ere izateko.

GOMENDIOAK

EAEko ordezkariak gobernuaren borondatea eta herrialdean egiturazko aldaketak sortuko dituzten politika publikoak definitzeko emandako aurrerapausoak aitortu dituzte, besteak beste, berdintasunari eta giza eskubideei lotutakoak. Horri dagokionez, giza eskubideak defendatzeko lana babestu eta aitortzeari buruzko Presidentetzaren Zuzentaraua goستن dugu (2023ko 07 Zuzentaraua). Zuzentaru hori ezartzea erronka bat da eta egoera berriak eraikitzeko eta giza eskubideak babesten dituzten norbanakoak, kolektiboak eta komunitateak babesteko bidea izan behar da.

Egindako bisitak eta bilerak eta aurretik aztertu dugun dokumentazioa kontuan hartuta, **gomendio** hauek egiten ditugu:

- Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioa oso-osorik ezartzea lurraldeetan, genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi diferentzialarekin. Hori egiten ez bada, ezinezkoa izango da Erabateko Bakerako politika publikoaren alde egitea.
- Jardule armatuekin negoziazioetan aurrera egitea ezinbestekoa da Erabateko Bakearen proiekturako, eta horren barne egon behar da talde kriminalek Justiziarimen egiteko Legea sustatzea.
- Komunitate indigenek, afroek eta nekazariak aktiboki parte hartzea negoziazio- eta elkarrizketa-prozesuetan.
- Erabateko landa-erreforma bultzatzea, Kolonbiako gobernuaren eta FARC-EPren arteko Bake Akordioaren 1. kapituluak dioen bezala. Herri indigenei, herri beltzari eta nekazari-komunitateei lurrak birbanatzen aurrera egitea eta elikadura-burujabetza defendatzeko programak ezartzea.

- Antiokiaren kasuan, bereziki kezkarria da Medellinera desplazatutako 40 familia zenuen egoera: Antiokiako Biktima Indigena Zenuen Elkartean (ASPIZA) antolatuta daude eta beharrezkoa da familia horiek birkokatzea eta onibarrak erosten aurrera egitea. El Bagreko kasuan ere bai (Behe Cauca).
- ACONCn antolatutako Kontseilu Komunitarioen kasuan, ezinbestekoa da lurrak erosten aurrera egitea, ANTN erregistratutako eskaeren arabera. Gainera, Biktimentzako Unitateak, JEPren 2019ko 047 Autoa betez, Biktimen Erregistro Bakarrean sartu behar ditu.
- Erakundeak beraien artean koordinatu behar dira babeserako eskubidea eta ez errepikatzearen eskubidea bermatzeko eta komunitateen birbiktimizazioa ekiditeko, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren esparruan.
- Erakundeen presentzia indartzea landaguneetan gizarte-, ekonomia-, eta kultura-garapenaren bidez, eta ikuspegi etnikoa eta genero-ikuspegia ezarriz. Garapen Plan horietan parte hartu behar dute komunitate indigenek, afroek eta nekazariak.
- Estatua lurraldeetan erabat presente egotea ezinbesteko lehenengo pausoa da komunitateek herrialdeko erakundetako konfiantza berriro izateko.
- Babes-ereduari buruzko eztabaida zabala eta partaidetzazkoa sustatzea. Egokitzat jotzen dugu babes kolektibo eta familiarreko mekanismoak indartu eta horietarantz jotzea, eta, horretarako, beharrezkoa da 2021eko 1139 Dekretua indargabetzea. Halaber, komeniko litzateke ikuspegi diferentziala eta genero-ikuspegia sartzea eta zeharkakotzea.
- Talde etnikoen babes-mekanismoak eta lurralde-kontrola indartzea: Guardia Indigena eta Guardia Cimarrona, eta beraien antolatze moduak eta gobernu propioak aitortzea.
- Escazuko Hitzarmena Kolonbiako estatuaren barne-araudira sartzea.

Azkenik, EAEko ordezkariak konprometituta daude giza eskubideen eta bakearen defentsarekin, Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa eta bestelako nazioarteko laguntza eta elkartasun tresnak indartzearen bitartez.

Kolonbiako erakundeekin elkarrizketa-espazioak mantentzeko prestasun osoa adierazten dugu eta egunero gizarte-, ingurumen-, eta genero-justiziadun herrialde baketsu batean bizitzearen alde lan egiten duten erakunde, komunitate eta kolektiboek laguntzen jarraituko dugu.

BIBLIOGRAFIA

Global Analysis 2022. Front Line Defenders

https://www.frontlinedefenders.org/sites/default/files/1535_fld_ga23_web.pdf

Giza Eskubideen aldeko NBERen goi-komisarioak Kolonbiako giza eskubideen 2023ko egoerari buruz egindako urteko txostena:

<https://www.hchr.org.co/wp/wp-content/uploads/2024/02/02-28-2024-Informe-Anual-Advance-Espanol-2023.pdf>

«La espera». Sei hileko txostena, 2023ko urtarrila-ekaina. Somos Defensores programa:

<https://somosdefensores.org/informe-semestral-la-espera/>

Kolonbia 2022 Jarraipen Misioa. Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko EAEko Programa. Zehar-Errefuxiatuekin. Bilbo, 2022.

<https://zehar.eus/eu/producto/kolonbia-txostena-2022ko-misioa/>

WEBGUNEAK

Alboan: <https://www.alboan.org/es>

Mugarik Gabe: <https://www.mugarikgabe.org/es/>

OIA: <https://organizacionindigenadeantioquia.blogspot.com/>

CINEP: <https://www.cinep.org.co/>

Zehar-Errefuxiatuekin: <https://zehar.eus/>